



ARAUTEGIA
MAHAI TENISA 2023

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Mahai Teniseko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2023ko ekainaren 3an Lepazpiko Bikuña Udal Kiroldegian (Gipuzkoa). Hona hemen arautegia:

1- JOKATZEKO MODUA

TALDEKAKO TXAPELKETA:

Hiru taldeko bi multzo izango dira, liga bat jokatu dute elkarren artean itzuli bakarrera.

Jokalari bakoitzak bi partida jokatu ditu, ondorioa, emaitzak honako hauek izan daitezke: 8-0, 7-1, 6-2, 5-3 o 4-4. Berdinketa ematekotan (4-4) bi biren aurka partida bat jokatu da.

Talde bakoitzak bere jokalarien txandak zehaztu ditu. Talde batek ABCD eta besteak XYZW hizkiekin jokatu du.

Bi biren aurkako partida jokatu balitz, talde bakoitzak erabakiko du parte hartuko duten jokalaria.

Partida bakoitza 4 mahai ezberdinetan denbora berean jokatu da. Partiden ordena honako hau izango da:

A taldea	X taldea
A	X
B	Y
C	Z
D	W
A	Y
B	X
C	W
D	Z
Binaka	Binaka

Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuek final aurreak jokatu dituzte. Partidak 3 set era jokatu dira.



EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK **XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



BANAKAKO TXAPELKETA:

Bi txapelketa jokatuko dira: Neska eta mutilena.

Mutilen txapelketan 3 jokalariz osatutako 6 talde egingo dira. Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuak hurrengo fasea jokatuko dute. Bi garren fase hau era honetan burutuko da:

Final zortzirenak: Bigarren sailkatutako 6 partaide eta 5. eta 6. taldeko lehen sailkatuen artean 4 partida jokatuko dira.

Final laurdenak: Aurreko taldeetako irabazleak eta 1-4 taldeetako lehen sailkatuen artean jokatuko dira.

Nesken txapelketa talde bakarrean antolatuko da. Ospatu ahal izateko bi lurralde ezberdinetako 6 partaide izan beharko dira gutxienez.

Txapelketa bietan 5 set era jokatuko dira.

2- TALDEEN OSAERA

Partaide guztiak infantil mailakoak izan behar dira, 2009 eta 2010ean jaiotakoak.

Talde bakoitza 4 taldekidek osatuko dute, eta mistoa izan beharko da, neska edo mutil bat gutxienez parte hartu beharko dute.

Partidak kamiseta eta praka motz edo gonaz jantzita jokatu beharko dira, eta debekaturik dago txandaleko jaka edo prakekin jokatzeko. Talde bereko jokalaria guztiek, gizonetako eta emakumezkoek, antzeko jantziak eraman behar dituzte, baina ezingo dute txuri eta laranja koloreetakoak eraman.

Partaideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.



3- JOKORAKO MATERIALA

Antolakuntzak 6-8 mahai homologatu jarriko ditu, baita pilota ofizialak ere.
Jokalarien erraketek egungo araudia bete beharko dute, eta ezingo da kolarik erabili.

4- SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Taldeka: lehen, bigarren eta hirugarren sailkatuek garaikurrak jasoko dituzte.
- Banaka: urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak jasoko dituzte.

6. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

7- AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2023ko otsailaren 6ko AGINDUA, 2023ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XL. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2023ko otsailaren 10eko EBAZPENA, 2023ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XL. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Mahai Teniseko Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.



EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro,
jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.